



# **SALAKETAK EUSKADIKO LAN HITZARMENA EZ BETETZEAGATIK**

Aurreko maiatzaren 6an, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei jakinarazi zitzaien 2014ko otsailaren 8an Euskadiko Auzitegi Nagusiak emandako autoa. Auto horrek agintzen du behin behinekoz Euskadiko hitzarmena bete behar dela Auzitegi Gorenak patronalek aurkeztutako helegitea ebatsi bitartean. Jakin badakigu ikastetxeek jaso dutela komunikazioa dagoeneko.

Horrela, ordezkari sindikalei proposatu diegu honen inguruan ikastetxeko titularrari galdetzea. Helburua da ikastetxeak urrats bat ematea epaia betetze aldera; Euskadiko hitzarmena jada bete dezala.

Hala ere, litekeena da zure ikastetxeko titularrak ez ematea 2008-09 EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen lan hitzarmenak jasotzen duen eskubideren bat (amatasunagatiko lizentzia, borondatezko eszedentzia, 58 urtez gorako eskola-orduak % 25ean gutxitzekoa,...) eskatzen duzunean; baina badaukazu zure enpresa salatzerik zure eskubideak defendatzeko. EAEko Auzitegi Nagusiak emandako behin behineko egikaritzean onarritutako langilearen aldeko epairik ere badago. Epaia horien aurrean, enpresak badu helegiterik jartzea, baina , autoan oinarriturik, badago behin behinekoz betetzea eskatzerik .

Ezer egin baino lehen, garrantzitsua da zure ikastetxeko STEE-EILASeko ordezkariekin edo sindikatuko alorreko arduradunekin zure kasu zehatza aztertzeko. Kasuan kasuko, STEE-EILASek aholkua emateko konpromisoa hartzen du.

**Gure lan hitzarmena orain !!  
Murrizketarik ez !**



<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Joaquin Beunza 4-6 behea	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>